

GURE BIDE GALDUAK

DEJABU PANPIN LABORATEGIA



Dejabu konpainiak ohikoa duen moduan errealismo magikoz zipriztindutako ikuskizuna aurkeztu du: Gure bide galduak. Euskal Herriko historia hurbila abiapuntu hartzen duen lan honek- Franco hil ondorengo lehen urteak, hain zuzen- baserri girotik hirira magisteritza ikasketak egitera doan neska baten gogoetak ditu ardatz.

Bost aktore eta zuzeneko gitar doinuekin euskaraz sortutako antzezlan hau utopia, amets eta desenkantuari buruzko kontakizuna da. Gure memorietatik berreskuratutako piezekin sortutako gaurko ipuina.

SINOPSISIA

70. hamarkadaren azkenetan. Orereta, Euskal Herria.

Kattalin, Nafarroako baserri inguruko herri txiki batetik Oreretara doa bidaian. Osabaren etxera doa bizitzera, Donostian magisteritza ikasketak egiteko.

Garai mugituak dira. Azken urteetan fabrika erraldoiak eraiki dituzte herri askotan. Herrixka izandakoak "hiri" bilakatu dira urte gutxian.

Franco hil berri, Euskal Herria aldaketa sakonak ari da bizitzen. Fabriketan gero eta ohikoagoak dira patroien kontrako liskarrak eta egoera politiko berriak herri mugimendu antolatu bati egin beharko dio aurre.

Kattalinekin, Escuela de Magisterion, Ikastolen mugimenduarekin egingo du topo, eta haren bidez deskubrituko du mundu berri bat, lagun berriak, maitasuna, borroka, ideologia...



Proposamen eszenikoa

Egurrezko plataforma bat dago oholtzaren erdian (3 x 2 metroko azalera duena). Haren gainean gertatzen da joko guztia. Inguruan aulki batzuk, eta objektu zaharrak. Plataformatik kanpoko espazio horretan aktoreak prestatzen ikusiko ditugu, pertsonaietan bilakatzen. Antzerkia joko da guretzat eta joko hori agerian egin nahi dugu, ikusleekin konpartitu.

BEHAR TEKNIKOAK

Gutxienez 6 X 4 m ko oholza behar da. Atzeko teloa eta ilundu daiteken espazioarekin.

Argi eta soinu beharrak espazioaren arabera zehaztuko dira.

Zuzendaritza:

Dejabu

Testua:

Aktore taldea.

Aktoreak:

Urko Redondo

Miren Alkala

Maria Alonso

Iñigo Aranbarri

Ainara Gurrutxaga

Musika:

Arantxa Vicedo

Argi diseinua:

Ander Fernandez

Jantziak

Pat

Kartela:

Ibai Maritxalar

Banaketa:

Sabino Alkorta

Antzezlanaren iraupena 70 min.

Ibilbideak



AINARA GURRUTXAGA. London international school of performing arts eskolan egin zituen arte dramatiko ikasketak (2001-2003). *Dejabu konpainiaren* sortzaileetako, Mikelazulo kultur elkarteko kide ere bada. Aktore eta zuzendari laguntzaile lanetan jardun du azken urteetan. *Tanttaka, Tentazioa, Gar* eta *Antzerkiola Imaginarioa* taldeekin ere egin du lan.

URKO REDONDO Pedagogian lizentziatu ostean Ingalaterrara jo zuen London School of Puppet eskolan bi urteko ikasketak burutzera. *Dejabu konpainiaren* sortzaile, berak sortzen ditu taldearen txotxongiloak eta eszenografiak. *Antzerkiola Imaginariorekin* egin du lan. Gaur egun antzerki irakasle ere bada.

MIREN ALKALA Iruñeako ENT antzerki eskolan aritu ostean London International School of performing arts eskolan egin ditu ikasketak (2002-2004). Orduetik *You need me* konpainiako kide da, Ingalaterran.

MARIA ALONSO Oihulari Klown taldearekin jardun ostean LISPAn burutu zituen antzerki ikasketak (2003-2005). Orduetik *Theatre du Rivagerekin* (Gau jokoak), eta *Txaloren Kika marisorgina* lan egindakoa da, eta Higa antzerki taldearen kide da. Gaur egun Legaleon-Tk Irunen duen antzerki tailerretan irakasle da.

IÑIGO ARANBARRI Donostiako TAE eskolan egin zituen aktore ikasketak. Ondoren Gar konpainiaren *Hire zain* eta ADOS konpainiarekin *Einstein* antzezlanetan egin du lan aktore gisa. Telebistan ETB 1eko Pelotari teleailean lanean jardun zuen.

ARANTXA VICEDO Gitarjole eta abestaria. Sabur musika taldeko ahots eta konposatzailea.

DEJABU PANPIN LABORATEGIA

Dejabu panpin laborategia, 2001. urtekoan sortu genuen txotxongiloekin eta objektuekin lan egiteko.

2005ean kanpora joan ginen antzerki ikasketetetan sakontzera: London, Paris eta Kracovian izan ginen.

Itzultzean sortu genuen **Gizona ez da txoria** (2009) antzezlan, ondoren Bilboko ACT jaialdian sorkuntza onenari, Pragan zuzendaritza onenari eta Subotican (Serbia) aktore onenaren saria eskuratu duen antzezlan.

Ondoren iritsi zen **Azken portua** (2010), haurrentzako ikuskizuna. 2011ean Xixoneko FETEN jaialdirako hautatua izan den antzezlan.

Errautsak sortu genuen helduentzat 2010ean beste bi euskal konpainiekin elkarlanean (Artedrama eta Le petit theatre de pain). Azpeitiako txalo saria eta Donostia Antzerki Saria 2011 eskuratu dituen antzezlan.

Gure bide galduak (2011) urrats berri bat da konpaniarentzat, entretenitzeaz gain gogoetarako gonbitea egiten duen antzerki baten bilaketan beste pausu bat.

TALDEAREN ANTZEZLANAK:

- **GURE BIDE GALDUAK** (2011)
- **ERRAUTSAK** (2010) Artedrama eta Le Petit theatre de pain taldeekin sortutako ikuskizuna. Donostia Saria 2011
- **AZKEN PORTUA** (2010) Haurrentzako ikuskizuna, txotxongilo eta zuzeneko musikarekin.
- **GIZONA EZ DA TXORIA** (2009) Helduentzako, txotxongiloekin.
- **SINK** (2006) Knee theatre pieza, UK
- **IKARA** (2005) Bideo antzerki pieza
- **ZABOR ONTZIA** (2004) Zuzeneko orkestrarekin eginiko haurrentzako ikuskizuna
- **ZEIN POLITA DEN PANAMA** (2002) Txotxongilo ikuskizuna
- **RIIRU XOL** (2001) Mikelazulorekin elkarlanean eginiko antzezlan, Senegal.

Muntaia:

Iraupena: 70 min.

Muntaia: 6 ordu

Desmuntaia: 2 ordu

Taldea: 6 kide. 5 aktore eta musikari bat

Salako teknikaria behar da muntai denboran bederen.

Argien eta soinuaren maneia oholtza gaineratik egingo dute aktoreek

Espazioa:

Deskribapena: Italiar erako aforoa

Gutxienezko neurriak 7m zabalean x 5m sakonean X 3m altueran

Argiztapena:

FOKOAK: 12 PC, argia mozteko palekin.

Soinua:

EKIPAMENDUA: Monitorea, oholtzaren atzetik irteteko soinua.

Beste batzuk:

Eszenategiaren eskerraldean (ikusleen lekutik begiratuta) DMX seinalearen irteera oholtza gainean eta argindarrarentzako toma.

Eszenategiaren eskubi aldean soinuarentzako R eta L irteerak antzokiko amplifikaziora. Argindar bi toma.

Sormena/ekoizpena:

Dejabu

panpin laborategia

www.dejabu.org

info@dejabu.org

665715558

675006680

Banaketa:

ARTEDRAMA

Arte eszenikoen plataforma

Xabino Alkorta

(+0034) 615779511

info@artedrama.com

www.artedrama.com